



Esp.zk. SUBV_CON_COMPET/2025/17

SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK EGITEKO DEIALDIA. 2025

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** [\(2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua\).](#)

Iruñeko Udalak, 2025eko aurrekontuan, hasiera batean 1.672.918 euroko zenbatekoa aurreikusi du Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauzatzeko, herrien arteko nazioarteko lankidetzak sustatzeko aldera.

II. Plan Zuzentzailean (2022-2025), Programaren helburua da Iruñeko herritarren elkartasuna bultzatzea, laguntzea eta garatzea, bereziki gure udalerrian aktiboak diren GGKEek ordezkatzeko dutenena, horretarako tokiko lankidetzako ekintzak gauzatuz behar handiena duten Hegoaldeko herri eta komunitateekin.

Gainera, elkartasuna eta lankidetzak gure gizartearen erantzukizuna direla eta ez laguntza asistentzial hutsa ulertu dadin lagundu nahi da, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiago dela.

Hobe informatutako eta egun eragiten diguten arazo globalak zein diren konturatzen diren herritarrak lortzea, eta modu aktiboan inplikatzeko direnak horiek konpontzeko, hirian bertan keinu txikiak eginez, jakinik mundua aldatzeko behetik hasi behar dela, zehatzenetik.

Azkenik, garapenerako lankidetzari eta Iruñean hegoaldeko begiradari berriz balioa ematen laguntzea, aldaketa eta erronka globalen testuinguruan tresna eraldatzaile gisa, eta, horretarako, tokiko esparruaren abantaila konparatiboetan sakontzea.

2025. urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da garapenerako lankidetzak eta nazioarteko lankidetzak laguntzea. Plan horren 2. ildo-estrategikoan (Lankidetzak) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat: garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzak-proiektuak egiteko laguntza-deialdia. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.



B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da Iruñeko lurralde-esparruan egin beharreko garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak –biztanle orori zein kolektibo jakin batzuei eta hezkuntza ez-formalera zuzenduak– beste hainbatekin batera finantzatzea.

2. Deialdiaren helburua:

Hegoaldeko herrialdeen urritasun-egoerarekin, egoera horietara bultzatu dituzten zergatiekin eta komunitate horiek arazook gainditzeko egiten ari diren ahaleginekin zerikusia duten alderdien gainean sentsibilizatu eta prestatzea, halako moduz non Iruñeko herritarren artean engaiamendu solidarioko jarduerak bultzatuko baitira. Tokiko esparrutik abiatuta gai horren inguruan dugun arduraz jabetzea nahi da, eta horren arabera jardun ahal izatea mundu bidezkoago eta ekitatiboago baten alde. Era berean, arrazismoaren eta bazterkeriaren aurka sentsibilizatzeko eta tolerantzia eta kulturen arteko bizikidetzak sustatzeko jarduerak bultzatuko dira.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

a) Deialdi honetan adierazitako printzipio eta baldintzetara egokitzea. Aurkeztutako proiektuek honako dimentsio hauetakoren bati erantzunen diote:

- Sentsibilizazioa: herritarrei zuzendutako ekintzak, kontzientzia kritikoa pizteko, elkartasunezko jarduteak egiteko eta/edo desperekotasunen ondorioak ikusarazteko.
- Garapenaren aldeko hezkuntza: eskubide-urraketen eta desperekotasunen kausak eta ondorioak hobeto ezagutzeko ekintzak, osagai eraldatzaile batekin.
- Garapenaren aldeko ikerketa: eskubide-urraketak eta desperekotasunak eragiten dituzten egiturazko kausak aztertzea bideratutako ekintzak.
- Eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa: kolektibo baztertuenei eta giza eskubideei eragin diezaieketen politika publikoen edo erabakiak hartzeko espazioen agenda eraldatzera zuzendutako ekintzak.

b) Jarduerak 2025/09/01aren eta 2026/08/31ren artean egin behar dira.

c) Jarduerak izaera irekia, publikoa eta doakoa izan beharko dute, lehentasunez Udalaren lokaletan eginen dira eta Iruñeko lurralde-esparruan bakarrik eginen dira.

d) Behar bezain zabal garatuta aurkeztea emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideen berri ematen duen informazioa.

e) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzeaz arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri.

f) Erakunde eskatzaileak ezaguera zabala erakutsi behar du proiektuaren eta hura gauzatzeko moduaren gainean, bai eta proiektua behar bezala gauzatzeko behar diren material mota eta pertsona kopuruaren gainean ere.

g) Aurkeztutako proiektua aurreko deialdietan diruz lagundutako beste proiektu baten jarraipena bada, derrigorrez aurkeztuta izan beharko dituzte deialdi horiei dagozkien justifikazio-txostenak bertan ezarritako epean, dirulaguntza honi heldu ahal izateko; baita pertsona onuradunak berezko dituen eginkizunak beteta izatea ere.

h) Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkezten ahalko du deialdi honetan. Hala ere, beste entitate batzuen laguntza eman eta jasotzen ahalko da proiektuak gauzatzekoan, baina horrek ez du aldatuko entitate eskatzaileak duen onuradun bakar izaera.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Deialdi honen xedetik kanpo geratuko dira:

- 1.- Garapeneko edo Larrialdi Humanitarioko beste proiektuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak.
- 2.- Entitate eskatzailearen barne-funtzionamenduak sortutako jarduerak, hala nola kontratatutako langileen barne prestakuntzako jarduerak, aldian aldiko buletinaren edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar.
- 3.- Iparreko herrialdeetan bizi direnek Hegoaldeko herrialdeetara egindako bidaiek eragindako gastuak.
- 4.- Jarduerak ikastetxeetan, eskola-ordutegiaren barruan.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 120.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, deialdi hau ebazten denean funts erabilgarriak baldin badago, deialdi honetara bideratzen ahalko dira eta horren guztizko zenbatekoari gehitu.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/23930/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Entitate onuradun bakoitzari gehienez emanen zaion kopuruak ezin izanen du gainditu aurkeztutako guztizko aurrekontuaren % 90, eta gehienez ere 10.000 € jasoko ditu.

Emandako dirulaguntzak erabilgarri dauden funtsen eta aurkeztutako proiektuak eskuratzen duen puntuazioaren arabera izanen dira; horretarako, ehuneko-tarteak ezarriko dira. Edonola ere, finantzatutako proiektuek gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte finantzaketa jasotzeko, eta honako tarte hauekin lotuta egonen dira:

60 eta 68 puntu bitarte: eskatutakoaren % 78, deialdi honen oinarriei dagokienez.

69 eta 77 puntu bitarte: eskatutakoaren % 85, deialdi honen oinarriei dagokienez.

78 eta 86 puntu bitarte: eskatutakoaren % 92, deialdi honen oinarriei dagokienez.

87 puntu baino gehiago: eskatutakoaren % 100, deialdi honen oinarriei dagokienez.

Proiektuen puntuazioei loturiko portzentajeak diruz lagundu daitezkeen gehieneko mugak dira; hortaz, ehuneko horiek baino gutxiagoko dirulaguntza eman daiteke, aurrekontuaren eskuragarritasunaren arabera, gutxienezko dirulaguntza % 70ekoa izaki.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Murriztapenezko hainbanaketa bat egiten ahalko da, eskaera guztiak bakoitzari dagozkion H apartatuko eta C.3 apartatuko irizpideak jarraituta ebaluatu ondoren, guztizkoak esleitutako gehieneko aurrekontua gainditzeko badu. Hainbanaketa proportzionalki aplikatuko zaie onartuak izan diren eskaera guztiei. Bigarrenik, behin lehen hainbanaketa egin eta gero, eskaera batzuetan potentzialki ken daitezkeen kopuruak proportzioan banatuko dira gainerako eskaeren artean, betiere gainditu gabe hala banakako gehieneko kopuruak nola ezarritako aurrekontuaren ehunekoaren mugak; beraz, behar beste hainbanaketa egiten ahalko dira.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta: 120.000 € 2. urtekoa () € 4. urtekoa () €



1. urtekoa ()

€

3. urtekoa ()

€

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko betekizunak:

Onuradun izaten ahal dira dirulaguntza ematea dakarren egoeran dauden pertsonak edo entitateak, baldin eta ondoren aipatzen diren inguruabarretan badaude eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok eragiten ez badie, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken betekizun horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea:

- Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren (AECID) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan izena emanda izatea eskabidea aurkeztu duen egunean; halaber, dokumentazioa eguneratuta izan beharko dute edo
- Herritarren Entitateen Udal Erroldan izena emanda izatea eta lehen edo bigarren mailako jarduketaren eremua garapenaren aldeko lankidetzak izatea.

b) Irabazi asmorik ez izatea.

c) Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra. Nolanahi ere, deialdi honen onuradunak izaten ahalko dira betekizun hau bete ez, baina azken bi urteetan Iruñean Hegoaldeko herrialdeen egoerarekiko elkartasuna eta sentsibilizazioa sustatzearen esparruan jarduerak egin dituztela egiaztatzen duten entitateak.

d) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzeaz arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri.

e) Helburu sozialak beteko direla bermatzeko egitura edukitzea eta proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatu ahal izatea.

f) Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren deialdi honetan zein besteren batean aurretik beste dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, deialditik kanpo geratuko dira.

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta dirulaguntzaren eskabidearekin batera.



E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

a) Dirulaguntza ematearen oinarrian dagoen helburua betetzea, proiektua gauzatzea edo jokabideari heltzea.

b) Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea jardueren garapena hedatzeko, iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatze aldera, lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari dagokienez.

c) Egin beharreko txostenen bidez justifikatzea deialdiaren baldintzak eta betekizunak bete direla, jarduerak egin direla eta dirulaguntza emateko arrazoiaren xedea bete dela.

d) Iruñeko Udalari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro.

e) Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketen berri: estatutu-aldaketak, entitatearen legezko ordezkariaz aldatzea, etab.

f) Jasotako funtsak itzultzea, hala deialdi honen Q) apartatuan nola Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

g) Egunean izatea Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak.

h) Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik, eta urteko kontuak –organo emailearen eskura egonen dira, eta organo horrek eskatzen ahalko ditu dirulaguntzaren onuradun suertatuz gero–.

i) Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoan eskatutako baldintzak betetzea adingabeekin ohiko kontaktua duten lanbide, ogibide eta jardueretan aritzeari dagokionez (VIII. eranskina).

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutakoa baino gutxiago bada, Udalak eskatzen ahalko du proiektua eta proiektuaren aurrekontua finantzaketa-aukera errealetera doitzea. Aurkeztutako birformulazioak, VI. eranskinarekin bat, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko ditu, eta ezin izanen du jarduketa edo ekipamendu berririk edo hasierako eskabidean sartu ez ziren erantsi. Aurrekontu berriak hasiera batean aurreikusitako kofinantzaketa-ehunekoa errespetatu beharko du. Birformulazioa egiteko, unitate kudeatzaileak –Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak– entitate onuradunei jakinaraziko die ebazpen-proposamena, birformulazioa aurkezteko epearekin, eta epe hori 10 egun baliodunekoa izanen da. Behin epea amaituta, egindako aldaketek aurretik ezarritako baldintzak betetzen dituzten baloratuko da, eta dirulaguntza emateko ebazpena onetsiko da.

Aurreikusi ez diren inguruabarrek proiektuaren garapena aldatu edo hein handi batean eragozten badute, aldaketak egiten ahalko dira proiektuan. Aldaketa horiek Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinarazi beharko zaizkio baloratu ditzan eta, behar izatera, Iruñeko Udalak onetsi ditzan. Funtsezko aldaketatzat joko dira jarduerai eragiten dietenak edo eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko % 20tik gorako aldeei eragiten dietenak, helburuei eta espero diren emaitzei eragin gabe.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio unitate kudeatzaileari (Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari), aldaketak eragin dituzten inguruabarrak gertatu eta gehienez ere 15 eguneko epean. Eskaerak bat etorri beharko du Proiektuak aldatzeko inprimakiarekin (VI. eranskina); inprimakia Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak berak emanen du eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) deskargatzen ahalko da. Iruñeko Udalak aldaketak onetsi beharko ditu, balorazioa egin ostean.

Proiektua gauzatzean gerta daitezkeen gertakari txikiak edo aldaketa ez funtsezkoak dagozkien jarraipen-txostenetan adierazi beharko dira.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkezten ahalko du, eta eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura



Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikularekin bat.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Epe hau luzaezina da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalarai baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako dokumentu hauek: entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen duena, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

- Entitatearen estatutuak.

- Ziurtagiria, egiaztatzeako Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkarrean Erregistroan edo Herriarren Entitateen Udal Erroldan izena emana duela.

- Entitate eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.

- Entitate eskatzailearen legeko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo antzekoa; ordezkari-izaeraren eta une horretan aitorturik duen ahalordearen akreditazioa).

- Egoitzan edo ordezkartzan lanean ari diren kontratatuen zein boluntarioen zerrenda.

.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapidean ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izan balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria hori V. eranskinarekin inprimakiarekin bat aurkeztu beharko da. Memoriaz gain, laburpen-orri bat aurkeztu beharko da, honako alderdi hauek jasota: aukeratutako gaiak, proiektuaren testuinguru orokorra, aurreikusitako helburuak, egin beharreko jardueren deskribapena, zein talderi eta eragile parte-hartzaile dagoen zuzenduta, jarduerak non egingen diren, eta aipamen labur bat entitate eskatzaileak garapenaren aldeko sentsibilizazio eta hezkuntzako esparruetan izan duen ibilbidea eta eskarmentua azalduta. Eranskinak izenburuarekin eta zenbakituta aurkeztuko dira, eta proiektuarekin lotuta egonen dira, ez entitatearekin.

g) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, banku-entitateari dagokionez aldaketarik izan bada. IV. eranskina

h) Entitate eskatzaileak azken bi urteetan Iruñean garapenaren aldeko sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren esparruan egindako jardueren gaineko egiaztagiria. Deialdi honen V. eranskinarekin bat (Proiektuak aurkezteko inprimakia) egin beharko da.

i) Aurrekontu banaketa, jarduketarako garatzeko gastuekin eta diru-sarrerekin, bai eta entitateak paratzen dituen baliabideak eta beste erakunde edo entitate batzuei eskatu edota horiek emandako dirulaguntzak ere aipatuta. Deialdi honen V. eranskinarekin bat (Proiektuak aurkezteko inprimakia) egin beharko da.

j) Gauzatu beharreko proiektua zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak).

k) Diruz lagundutako proiektuaren jarduerak adingabeekin ohiko harremana izatea dakartenean,



entitatearen erantzukizunpeko adierazpena, VIII. eranskinarekin bat.

Eranskinen parte diren agiri guztiak modu digitalean aurkeztu beharko dira.

a) apartatuan zehaztutako agiriak ez dira aurkeztu beharko, baldin eta Iruñeko Udalaren eskuetan badaude eta horietan aldaketarik izan ez bada, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro agiriak dagokien prozedura amaitu zenetik. Halakoetan, haien ordeztu erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da, eta bertan adierazi agiri horiek noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo eman ziren, edo, bestela, zein prozeduratan dauden jasota.

.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutako, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Modu telematikoan egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztatutako (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: 100 puntu gehienez ere.

a) Aurkeztutako informazioa eta proiektuaren kalitate teknikoa (43 puntu bitarte).

- Garatu beharreko proiektuari buruz aurkeztutako informazioaren maila eta kalitatea: proiektua zein ingurunetan zedarritu eta horren egoeraren azterketa, egin beharreko jarduerak, etab. (10 puntu bitarte).
- Koherentzia-maila, jardunaren justifikazioaren, ezarritako helburuen, aurreikusitako emaitzen eta proposatutako jardueren artean. (7 puntu bitarte)
- Proiektuko jardueren garapena eta Hegoaldeko errealitatearekin duten harremana. (5 puntu bitarte)
- Erabili beharreko baliabideak eta garatu beharreko jarduerak baliagarriak izatea (berritasun-maila, aurreko urteetan garatutako sentsibilizazio jarduerak ez errepikatzea, jarduera horien eraginkortasuna, teknologia berrien erabilera eta abar) (5 puntu bitarte).
- Aurrekontua proposatutako jardueretara egokitzea, aurrekontuaren garapen xehatua egitea eta deialdi honetan zehaztutako mugetara doitzea. (6 puntu bitarte)
- Gauzatu beharreko ekintzen bideragarritasuna (bitarteko teknikoak, langileak barne). (5 puntu bitarte)
- Zein jarraipen- eta ebaluazio-sistema garatzea aurreikusi den: horien adierazleak, inpaktua, parametroak, tresnak eta ebaluazio-iturriak. (5 puntu bitarte)

b) Ekintzaren xedea den populazioaren parte-hartze aktiboa, eta harremanak bultzatzea Iruñeko erakundeekin (10 puntu bitarte).

- Boluntarioek elkartasunezko jardueretan parte har dezaten sustatzea. (3 puntu bitarte)
- Bazterketari aurre hartzea sustatzen duten jarduketara zehatzak txertatzea. (3 puntu)
- Iruñeko kolektiboen artean elkar ezagutzeko harremanak proiektuan. (4 puntu bitarte)

c) Aurkeztutako jarduera proiektu orokor batean txertatuta egotea (8 puntu bitarte).

- Proiektu global baten baitan kokatzea, Iruñean sentsibilizazio lanari jarraipena emanen diona.
- Proiektuak ekarritako efektuek denboran luze irautea.
- Proiektuaren jarraipena lantalde egonkorren bidez.

d) Hegoaldeko herrien prekaritate-egoerei buruz eta horiek gertatzeko arrazoiei buruzko hausnarketa



(12 puntu bitarte).

- Harreman globalei buruzko hausnarketaren kalitatea eta irismena. (6 puntu bitarte)
- Hegoaldeko gizartearen aldarrikapenei emandako babesa, bereziki giza eskubideen esparruan. (3 puntu bitarte)
- Gure bizimoldeak (ohiturak, nekazaritzako eta merkataritzako politikak, ikuspegi etnozentrikoa, etab.) Hegoaldeko herrialdeetan duen ondorioei buruz kontzientziatzea. (3 puntu bitarte)

e) Beste GGKE edo gizarte entitate batzuen parte hartzea edo lankidetzaren proiektua gauzatzean (6 puntu bitarte).

- Bi entitatek gutxienez parte hartzen duten proiektuak.
- Aurkeztutako informazioa, parte hartzen duen entitate bakoitzaren ardurei eta erantzukizunei buruz.
- Bere sektorean, auzoan edo ikastetxeetan eragina duten taldeen edo entitateen engaiaimendua, sentsibilizazioa gehiago hedatzeko edo hura biderkatzeko.

f) Jardueraren edukiarekin zerikusia duen materiala argitaratu eta hedatzea (2 puntu bitarte).

- Material horiek banatzeko planaren kalitatea.
- Materialak hedatzeko aurreikusitako hedapenaren kalitatea.

g) Genero-ikuspegia (6 puntu bitarte).

- Emakumeen ikusgarritasuna, presentzia, lana eta proposamenak Hegoaldeko gizarteetan.
- Gogoeta egitea Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeek bizi dituzten egoeretan diren ezberdintasunei eta antzekotasunei buruz.
- Emakumeen ahalduntzea sustatzea.
- Generoaren ikuspuntua aplikatzea hizkuntzan, komunikazioetan eta proiektuaren garapenean berean.

h) Iruñeko entitate aktiboek babestutako lankidetzaren proiektuekin zuzenean lotutako errealitateari eta esperientziei buruz emandako informazioaren kalitatea (3 puntu bitarte).

- Berariaz adieraztea zein kooperazio-proiektuekin lotzen den.
- Aipatu proiektuekin duen loturaren berri ematea.
- Aipatu proiektuetan engaiaitutako eragileen parte-hartzea.

i) Kontuan hartu beharreko beste irizpide batzuk (10 puntu bitarte).

- Entitate eskatzailearen eskarmentua eta gaitasuna sentsibilizazio jarduketetan. (2 puntu bitarte)
- Aurreikusten den eraginaren norainokoa, proiektu honetan prestatutako pertsonen geroan egin daitezkeen garapenaren aldeko lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari buruzko proiektuetan edukiko duten engaiaimenduari dagokionez. (2 puntu bitarte)
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonendako irisgarritasun-maila. (3 puntu bitarte)
- Proposatutako ekintzen arriskuen azterketa. (3 puntu bitarte)

Proiektu batek gutxienez 60 puntu lortu behar ditu dirulaguntza jasotzeko.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeako, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

	Garapenerako Lankidetzako Alorreko Zinegotzi Ordezkaría/ Ordezkoa: horrek eskuordetutako beste zinegotzi bat.
Batzordekideak:	
1.	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzio, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaría/ Ordezkoa: Iruñeko Udaleko beste alor bateko zuzendaría.
2.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat /Ordezkoa: Alorreko beste udal-teknikari bat.
3.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat /Ordezkoa: Alorreko beste udal-teknikari bat.
Idazkaría:	Iruñeko Udaleko Zuzenbidean lizentziaduna/ Udaleko beste zuzenbide-lizentziadun bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat ere bai, eta hor egiaztatuko du eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela dirulaguntza jasotzen duten pertsona zein entitateak dirulaguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientearen balioespen-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balioespen-irizpide objektiboen arabera.

Balioespen-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientearen eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 6 hilabete

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntza jasoko duten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzaren zenbatekoa eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu



legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

- Langileria-gastuak. Proiektuaren koordinazio eta kudeaketari lotutako gastuak: giza baliabideak eta proiektuaren kudeaketari eta koordinazioari lotutako beste batzuk. Gastu horiek ezin izanen dute gainditu jasotako dirulaguntzaren % 20, eta entitatearen egoitzako langileenak izanen dira, Iruñean egindako proiektuarekin lan-harremana badute, osoa nahiz partziala.

Giza baliabideetako partida honetako gastuak bat etorri beharko dute proiektuak aurkezteko inprimakian proiektuaren arduradun eta koordinatzaile gisa agertzen diren pertsonekin.

Argi geratu beharko da apartatu honi dagozkion proiektuaren koordinazio- eta kudeaketa-funtzioak egitearen eta teknikari eta hezitzaileek egiten dituzten jardueren arteko aldea.

Ez dira diruz lagunduko entitate onuradunetako zuzendaritza-batzordeetako edo administrazio-kontseiluetako kideei dagozkien langileria-gastuak.

- Proiektuaren kanpoko ebaluazioari edota sistematizazioari lotutako gastuak. Proposamenaren diseinu-matrizearen eta informazio xehatuaren eranskina erantsi beharko da, aurrekontua zehazki sartuta. Gastu horiek ezin izanen dute jasotako aurrekontuaren % 20 gainditu.

- Administrazio- eta kudeaketa gastuak. Epigrafe honetan sartuko dira jarduerak egiteko lokalen mantentze-lanak edo alokairuek sortutako gastuak, bulegoko materialenak eta ohiko beste gastu batzuk. Administrazio eta kudeaketako gastuek ezin izanen dute gainditu jasotako dirulaguntzaren % 7, eta Iruñeko egoitzan egindako gastuak izanen dira.

- Proiektuaren hedapenari dagozkion gastuak. Epigrafe honetan sartuko dira jarduerak hedabideen bitartez zabaltzeari dagozkion gastuak (kartelak, triptikoak, prentsa, irratia eta telebista).

- Jardueren zuzenean egotz dakizkiekeen gastuak:

- + Jarduerak egitean zuzenean ukituta dauden giza baliabideak.

- + Materialak eta hornigaiak.

- + Bidaia, ostatu hartzeak eta dietak. Langileen mugikortasunari dagozkion bidaia, ostatu hartze eta dieten ondoriozko gastuak egotzen ahal zaizkio jasotako dirulaguntzari, baldin eta zuzenean lotuta badaude jarduerak gauzatzeari.

- + Zerbitzu teknikorik edo profesionalik emanez gero, kilometraje-ordainak sartzen ahalko dira, gehienez ere 0,32 euro kilometroko, erregai-gastuak, aseguruak eta mantentze-gastuak barne.

- + Materialak egitea, diseinatzea eta inprimatzea.

- + Alokairuak: entitatearen ohiko egoitzaz besteko guneak alokatzea, jarduketak egiteko beharrezkoak (ahal izanez gero publikoak).

- + Materialen garraioa eta aseguruak (erakusketarik eginez gero).

Edozein kasutan, aurkeztutako gastuek koherenteak izan beharko dute egindako jarduerekin.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.



Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) apartatuaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

- Entitate eskatzailearen barne funtzionamenduak sortutako jarduerak (barne prestakuntzako jarduerak, aldian aldiko buletinaren edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar).

- Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako edo larrialdi humanitarioko proiektuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak.

- Iparreko herrialdeetan bizi direnek Hegoaldeko herrialdeetara egindako bidaiak eragindako gastuak.

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: *Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea 2025eko irailaren 1ean hasiko da, eta 2026ko abuztuaren 31n amaituko.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenak egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 50

Entitate onuradunak azpikontratua egiten duela ulertuko da, hirugarrenekin ituna egiten badu, dirulaguntzaren xede den jarduerak osorik edo zati batean gauza ditzaten. Dirulaguntzaren xede den jarduera berez egin ahal izateko, onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunak diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Proiektuaren guztizko zenbatekoaren % 10, gutxienez

Entitate onuradunak proiektuko jarduera batzuk boluntarioen bidez gauzatzen baditu, eta horiek diru-ordainik jasotzen ez dutenez, gastu batzuk bere ekarpenari egozten ahalko dizkio, 900 € bitarte, hala nola boluntarioen alde sinatutako istripu-aseguru, gaixotasun eta erantzukizun zibileko polizetatik eratorritakoak, bai eta sortzen ahal diren beste gastu batzuk ere (prestakuntza, materialak...), betiere aurrekontuan aurreikusi badira.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Deialdi honetan dirulaguntza jasotzea bateraezina izanen da Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren esparruan ematen dituen beste dirulaguntzekin, urte berean eta jarduera bererako baldin bada.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordainduko diren: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
 - ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: Dirulaguntzaren % 100 aldez aurretik ordainduko da, ordainketa bakar batean.
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, aldez aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeak eratzea:

- ☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa: Dirulaguntza eman aurretik ez da eskatuko bermerako banku-abalik, irabazi-asmorik gabeko entitateendako dirulaguntzak izan eta Garapenaren aldeko Lankidetzarekin zerikusia duten jarduketak egin behar dituztelako; gainera, oinarri hauetan beraietan ezartzen dira dirulaguntzak kontrolatzeko eta justifikatzeko mekanismoak eta jasotako diru-kopuruak itzultzeko aukera.

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

- ☒ Justifikazio-kontua:
 - ☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Justifikazioa modu telematikoa aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa", X. eranskina.

Diruz lagundutako proiektuak egitearen arduradun diren entitate onuradunek proiektuaren garapenaren txosten deskribatzailea eta finantzarioa aurkeztu beharko dituzte. Txosten horrek bat etorri behar du Justifikazio Txostenaren Inprimakiarekin (VII. eranskina); inprimakia Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak ematen du eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) deskargatzen ahalko da. Amaierako justifikazio-txostena egindako proiektu osoari buruzkoa izanen da (Iruñeko Udalaren dirulaguntza eta beste finantzatzaile batzuk). 2026/10/01a baino lehenago aurkeztu beharko da, honako agiri hauekin batera:

a) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta zenbakitua, kontzeptuen



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, hala jasotako dirulaguntzari nola proiektuaren baterako finantzaketari dagokienez.

b) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, jaulkitzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriak, nominak, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute. Modu korrelatiboan ordenaturik aurkeztuko dira, aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

- Justifikazio-agiriek jatorrizkoak izan beharko dute.

- Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga, jaulkitzailearen sinadura eta zigilua eta ordaintzeko era. Inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak eta/edo kutxako tiketak.

- PFEZaren atxikipena eta ordainketa justifikatu beharko da, autonomoen kasuan.

c) Faktura edo beste ordainketa-agiri bakoitza egindako ordainketa egiaztatzen duen agiriaz lagunduta aurkeztu beharko da (transferentziak, hartze-agiriak, etab.).

d) Dirulaguntzaren xede izan diren administrazio- eta kudeaketa-gastuak justifikatzeko dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira. Gastu horiek ez dira % 7 baino gehiago izanen eta entitate eskatzailearen lokalen mantentze-gastuak, bulego materiala eta bestelako gastu orokorrak izanen dira. Entitateak Iruñean duen egoitzari egotzitako gastuak onartuko dira bakarrik.

e) Hartzailearen egiaztageria, Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa eta jatorria azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede den jarduerarik finantzatu badute, bai eta xede berarako jasotako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere.

f) Udalaren dirulaguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, kartelak, liburuxkak, ikus-entzunezkoak, etab.), bai eta diruz lagundutako proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen edozein agiri idatzizko zein grafiko ere (argazkiak, ebaluazioak, prentsa-dosierrak, etab.).

g) Diruz lagundutako proiektuei kontrola eta jarraipena egiten ahalko zaie garapenaren edozein unetan, eta proiektuaren ardura duten entitateek Iruñeko Udalak galdatutako edozein argibide edo agiri aurkeztu beharko dute.

Dirulaguntzaren justifikazioa egitean ez badira diruz lagundutako gastu guztien eta gastu horien ordainagirien kopia kautoak aurkezten edo justifikazioa modu elektronikoan egiten bada, organo kudeatzaileak entitate onuradunari eskatuko dio jatorrizkoak aurkez diezazkiola, 10 egun balioduneko epean eta aurrez aurre, egiaztatzeko kopia soilean aurkeztutako agirien benetakotasuna; organo kudeatzaileak administrazio-espeditentean jaso beharko du egiaztapena egin duela eta aurkeztutako kopiak bat datozela jatorrizkoekin.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Azken txostena, proiektuaren garapenaren berri ematekoa, eta finantza-kontu txostena, funts erabilgarrien erabilerari buruzkoa, 2026/10/01a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Justifikazioa ez bada adierazitako epeetan aurkezten, dirulaguntza itzuli beharko da. Horretarako, itzulketa-prozedura bideratuko da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

1.- P.2) apartatuan adierazitako epean dokumentazioa ez aurkeztea.

2.-Edozein zio dela medio diruz lagundutako gastuak ez egitea, edo horietan funtsezko aldaketak egitea, halakoetan ez egindako gastutzat hartuko baitira.

3.- Entitate onuradunak dirulaguntzaren dagokion partea itzuli beharko du, baldin eta benetako defizita edo benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira.

Baldin eta proiektu berarentzat beste zenbait dirulaguntza jasotzeagatik entitate onuradunak jasotzen duen zenbatekoa bada diruz lagundutako jardueraren kostuena baino handiago, Ñ apartatuan ezarritakoa bete beharko da.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.



S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☐ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☐ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTEKO ESKABIDEA

V. ERANSKINA. SENSIBILIZAZIO PROIEKTUAK AURKEZTEKO INPRIMAKIA

VI. ERANSKINA. PROIEKTUA BIRFORMULATZEKO INPRIMAKIA

VII. ERANSKINA. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETAK JUSTIFIKATZEKO INPRIMAKIA

VIII. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ADINGABEEKIKO KONTAKTUARI BURUZ

IX. ERANSKINA. AGIRIAK KONTSULTATZEKO BAIMENA

X. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*